

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Hizkuntza Gaitasunak
MODALITATEA:	Online
HIZKUNTZA:	Ingelesa

INTERMEDIATE

KODEA

2017-23-2-9/10/11/12

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA 100 ordu **IKASTARORAKO SARBIDEA** <http://ivap.myoxfordenglish.com>

HARTZAILEAK Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetako enplegatu publikoak

EDUKIAK Ikastaroak egokitasun zenbatetsia du edukietan hizkuntzen Europako Erreferentzia-Esparru Bateratuan ezarritako mailekin. Esparru horren, hain zuzen ere, hizkuntzen irakaskuntzaren curriculumeko tarteko mailarekin (B1.1).

TRAILERRA Hemen duzu ikastaroaren aurkezpen bideoa [gaztelaniaz](#) eta [ingelesez](#)

BALDINTZAK
-Helbide elektronikoa bakarria ikasle bakoitzeko (EAEko Admin. Orokorra eta haren EEAk):
-korporazio-saretik kanpodo posta-zerbitzarietatik eta zerbitzarietara mezuak bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duen posta elektronikoko kontua izatea. Ez dute balioko mezuak korporazio-sarearen barruan bidali eta jasotzeko aukera besterik ematen ez dutenak.
-Lanpostuak ezarrita duen euskara hizkuntza eskakizun maila egiaztatuta izatea.

BALDINTZA TEKNIKOAK
SOFTWAREA:

- Windows XP edo berriagoa, eta Interneterako konexioa
- Nabigatzaileak: Internet Explorer 8, Mozilla Firefox 14.0.1 (edo berriagoa) eta Chrome
- Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua)
- Adobe Flash Player 10 edo berriagoa

HARDWAREA:

- PC Pentium III edo berriagoa
- Soinu-txartela
- Entzungailuak mikrofonoarekin (gomendatuak) edo mikrofonoa eta bozgorailu independenteak

TUTORETZA
Ikastaroan tutoreek hurrengo lanak egingo dituzte:

- Mezu bat bidaliko dio ikasleari ikastaroari ongi etorria emateko plataformaren bitartez.
- Kontsultak jaso eta argitu:
 - Ikastaroaren EDUKIArekin zerikusia dutenak, posta elektronikoaren bidez
 - erantzuna 24 orduetan emango dute
- Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluaketa egin

HILEA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIOAK	BAJAK (ez da matrikula kobratuko)
			ESKATZEKO AZKEN EGUNA	OE	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	
OTSAILA	Otsailak 1	Ekainak 23	Urtarrilak 13	urtarrilak 16tik 19ra	Urtarrilak 19	urtarrilaren 31 arte
MARTXOA	Martxoak 1	Ekainak 16	Otsailak 6	otsailak 7tik 10era	Otsailak 10	Otsailaren 28a arte
UZTAILA	Uztailak 3	Azaroak 24	Ekainak 2	Ekainak 5etik 9ra	Ekainak 9	Ekainaren 30a arte
IRAILA	Irailak 4	Azaroak 30	Ekainak 30	Uztailak 3tik 7ra	Uztailak 7	Irailaren 1a arte

<http://ivap.myoxfordenglish.com/placement/>

MAILAKETA PROBA
 Proba egiteko epeak:
 -**otsaileko** deialdia: urtarrilaren 2tik 19ra
 -**martxoko** deialdia: otsailaren 20tik martxoaren 10era
 -**uztaileko** deialdia: maiatzaren 22tik ekainaren 9ra
 -**iraileko** deialdia: ekainaren 19tik uztailaren 7ra

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Hizkuntza Gaitasunak
MODALITATEA:	Online
HIZKUNTZA:	Ingelesa

INTERMEDIATE

Behin proba hasita, amaitu baino lehen ixten badugu saioa, berriz ere egin beharko dugu hasiera-hasieratik, dagokigun maila jakin nahi badugu.

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU NAGUSIAK

Ideia nagusiak ulertu eztabaida luzeetan, iritzi pertsonalak eskaini eta eskatu lagunarteko eztabaida batean, ulertarazi nahi duen ideia nagusia ulertzeko moduan adierazi, hizkuntza zabala eta erraza malgutasunez erabili, eta hainbat egoerari aurre egin garraio publikoan, bidaietarako erreserbetan edo bidaietan.

BERARIAZKO HELBURUAK

- Inguruari, lanari edo aisialdiari lotutako gaietarako iritziak ulertu. Bidaiekin zerikusia duten egoeratan moldatu.
- Ezagunak edo norberaren interesekoak diren egoerak deskribatu: esperientziak, ekitaldiak, itxaropenak eta igurikimenak edo espektatibak. Iritzi bat edo plan bat azaldu.

GAITASUNAK

Prestakuntza ekintza amaitzean ikaslea gai izango da:

- **Grammar:** *Present perfect*-a erabili (“*We’ve worked*”), boz pasiboan, hala lehenaldian nola orainaldian (“*Oranges are grown in Valencia*”), izenordain zehaztugabeak (*somebody, anyone, everywhere*, eta abar) eta erlatibozko perpaus murrizgarriak (“*That’s the girl my brother’s going out with.*”). Baldintzazkoak erabili (“*If I ran every day, I’d feel healthier*”), probabilitate-adjektibo eta adberbioak (*sure, certain, definitely*, eta abar), *tell* eta *say* aditzen eta infinitibozko egituren erabilera.
- **Vocabulary:** Janariak, ibilgailuak, internet, ehunak, Britainia Handiko ingelesaren eta Amerikako ingelesaren arteko diferentziak. Etxeko lanak, matematikak, aireportuak, gai juridikoak, sentimenduak, *do* eta *make* daramaten esamoldeak.
- **Listening:** Mezu nagusia ulertu komunikabideetan agertzen diren egungo gaietan, gai pertsonaletan edo profesioaletan, baldin eta diskurtsoa argia bada eta mantso ahoskatua badago.
- **Reading:** Norberaren gaiekin edo lanekoekin zerikusia duten testuak ulertu, eguneroko bizitzan sarri erabiltzen den hizkuntzan baldin badaude. Komunikabideetako artikuluen puntu nagusiak ezagutu, bai eta sentimenduen, desioen eta antzekoen deskribapena ere.
- **Speaking:** Hizkera egokia erabili bidaietarako eta eguneroko egoeretarako (lana, ametsak, sentimenduak, esperantzak, eta abar). Iritzia eman eta istorio baten haria edo argumentua deskribatu.
- **Writing:** Testuak idatzi gertakarien segida lineal bati eutsita, lokailuak ere erabilia. Esperientzia, ekitaldi edo gertakari eta iritziei buruz idatzi.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGÍA

Unitate didaktikoen modulu bakoitzaren edukiak garatzen dituzte eta zatitan banatuta daude. Unitateen ibilbideak malgutasun handia du, eta aukera ematen dio ikasleari edozein alorretara itzultzeko, edukiak lantzen jarraitu edo ariketa jakin bat nahi beste aldiz errepikatzeke.

Unitate bakoitzaren hasieran, *Annabel* irakasle birtualak **INTRODUCTION** bat egingo du eta jardueren helburuak azalduko ditu. Zenbait azalpen ere emango du —gramatika, hitzak, ahoskatzea—, eta jarraibideak eskaini, zer egin behar den eta noiz. Bi hizkuntzatan hitz egingo dio ikasleari (gaztelaniaz eta ingelesez), eta biak tartekatuko ditu bere azalpenetan. Gero eta gutxiago hitz egingo du gaztelaniaz, mailek zailtasunean gora egin ahala.

BIDEOak aurkeztuko dizkigu unitateko hitzak eta gramatika. Egitura guztiak aurkezten dira eta hitzak irakasten. Ikaslea pertsonaiekin batera hazten da, pertsonaia horiek arin eta natural sartzen dituztelako argumentuan gero landuko diren egiturak, hitzak eta ahoskera. Bideoa ingelesezko azpituluekin ikus daiteke, edo erreferentziako hizkuntzazko azpituluekin, bai eta azpitulurik gabe ere.

Bideoa ikusi, eta gramatikako ariketei ekingo die ikasleak. **GRAMMAR** atalak era askotako ariketak ditu unitateen atal guztietan: unitate bakoitzeko gramatika-puntuak praktikatzea da kontua.

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Hizkuntza Gaitasunak
MODALITATEA:	Online
HIZKUNTZA:	Ingelesa

INTERMEDIATE

Aurreko atala osatzeko, **VOCABULARY** izenekoa dugu. Helburu nagusizat du unitatean jorratutako eremu semantiko jakin bateko hitz espezifikoak ikastea.

Gero, elkarrizketa simulatuaren atala dator. **CONVERSATION** horretan, ikasleari aukera ematen zaio ikasitakoa erabil dezan: elkarrizketa simulatu bat egingo du bideoen protagonistekin, gidoi bati jarraituta (iradokizunekin eta argibideekin).

Unitate bakoitzaren amaieran, autoebaluazio-proba, **SELF CHECK**. Horren bitartez, ikasleak berehala egiazta dezake zer ikasi duen, eta, horrenbestez, ikasteko autonomia gara dezake. Hartara, landutako alor bakoitzari buruzko ezagutzak probatzen dira.

1. unitatea. *Present Perfect-a* (aditz erregularrak eta irregularrak). Ongailuak, espeziak eta saltsak.
2. unitatea. *Present perfect-a ever eta never-ekin. Present perfect ala past simple?*
Hiriak
3. unitatea. *Reading: turismoaren ondorio positibo eta negatiboak. Writing: In other words, on the whole, on the contrary.*
4. unitatea. *Present Perfect-a just, already eta yet-ekin. Posta-departamentua. Modu-adberbioak.*
5. unitatea. *Present Perfect-a for eta since-rekin. Will for eta until-ekin.* Autoan. Britainia Handiko ingelesa eta Amerikako ingelesa.
6. unitatea. *Reading: bizitza pertsonalaren eta lanaren arteko oreka. Writing: During, while, at present.*
7. unitatea. Izenordain zehaztugabeak (*somebody, anyone, everywhere, eta abar*). Internet. Zifra handiak.
8. unitatea. *Subject eta object questions.* Helburua adierazten duten zehaztugabeak. Kirolak eta harremanak.
9. unitatea. *Reading: Internet bidezko zitak edo hitzorduak. Writing: Because eta because of.*
10. unitatea. Erlatibozko perpausak (*which, that eta who*). Zatikiak. Itxura edo planta.
11. unitatea. Pasiboa (*present simple eta past simple*). Osagarriak eta ehunak.
12. unitatea. *Reading: Tranpetan telebistako lehiaketa batean. Writing: Iritziak azaldu.*
13. unitatea. Errepasoa: orainaldia eta geroaldia. Izenordain bihurkari edo erreflexiboak. Etxeko lanak. Aditzak (bihurkariak/ ez bihurkariak)
14. unitatea. Errepasoa: *past simple, past continuous eta present perfect.* Turismo-ostatuak. Mamuen istorioak.
15. unitatea. *Reading: Mamuei buruzko ikerketa bat. Writing: Beldurrarekin zerikusia duten adjektiboak.*
16. unitatea. Both, neither, all eta none. Maiztasun-esamoldeak. Matematika. Aireportuan.
17. unitatea. *Want* (norbaitek zerbait egitea nahi). Infinitibozko egiturak. Paper-gauzak. Karguak eta postuak.
18. unitatea. *Reading: Lanari buruzko gogobetetze-inkesta. Writing: Inkesta baten emaitzak.*
19. unitatea. *Tell/say, tell/ask.* Larrialdi-zerbitzuak. Etxe baten zatiak.
20. unitatea. *May eta might.* Probabilitate-adberbioak. Uniformedunak. Hitz juridikoak.
21. unitatea. *Reading: Horoskopoa. Writing: Sinonimoak.*
22. unitatea. *First conditional.* Geroaldiko denbora-esaldiak. Esamoldeak *do* eta *make*-rekin.
23. unitatea. *Second conditional. First edo second conditional?* Sentimenduetarako adjektiboak.
24. unitatea. *Reading: Kontsultategi edo aholku-bulego batera bidalitako gutunak. Writing: Gutun informala idatzi.*

PROGRAMA

Aparteko edukiak*: baliabide osagarri bat da, praktikatzeko, entrenitzeko, eta ikasitakoa finkatzeko.

- **Business Videos:** 9 unitate hauetan, negozioen arloko ingelesean giltzarri diren hiztegia eta esaldiak jasotzen dira.
- **Work Emails:** 60 unitate hauekin, mezu elektroniko eraginkor eta profesionalak idazten

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Hizkuntza Gaitasunak
MODALITATEA:	Online
HIZKUNTZA:	Ingelesa

INTERMEDIATE

ikasiko duzu.

- **Phrasal Verbs:** Negozio arloko ingelesean gehien erabiltzen diren 25ak.
- **Articles:** egunkarietako eta aldizkarietako 30 artikulua baino gehiago, eta grabazio bat ere bai.
- **eBooks:** liburu elektroniko hautatuak, genero askotakoak eta zure mailara egokituak.
- **Campus:** hiztegia eta gramatika errepasatzeko maila guztietako ariketak.

* Otsaila eta uztaileko deialdietan soilik

EBALUAZIOA

Ebaluaketaren helburua: Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea. Etengabeko ebaluazioa egingo da eta ikasgai bakoitzeko aurrerapenak *My Progress* atalean ikusiko du ikasleak modu grafikoa.

Unitate bakoitzaren amaieran, autoebaluazio-proba, **Self Check** izango da. Test horrek bost orrialde ditu, eta unitatearen gramatika- eta lexiko-edukiak jorratzen duten ariketak. Ikasleak galdera guztiak bete behar ditu emaitza ikusteko 6.orrialdean. Bost puntu edo gehiago lortuz gero gainditzen da proba. Behin proba hasita, amaitu baino lehen ixten badugu saioa, ez dira emaitzak gordeko.

Gainera, hiru unitatez behin, **Progress test** bat dago ikastaro bakoitzeko. Ebaluazioa gutxienez 5 puntu (%50) edo gehiago lortuz gainditzen da. Progress test bakoitzak 12 orrialde ditu eta hizkuntza-gaitasun guztiak hartzen ditu aintzat: *Reading, Writing, Listening, Use of English (Grammar and Vocabulary), Speaking* eta *Conversation*. Ahozko eta idatzizko probak ikasleak 2 eguneko epean jasoko ditu irakaslearen zuzenketa —iruzkin eta guzti—(bakarrik bigarrenak eta hirugarrenak zuzenduko dituzte). Sistemak erantzun guztiak gordeko dizkizu **Progress testa** zuzentzeko bidali arte, horrela, ez duzu zertan ariketa guztiak momentu berean egin.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Posta elektronikoaren bidez, inkestaren lotura jasoko duzu, bete dezazun.

ZIURTAGIRIA

Aprobetxamendu-egiaztagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- Autoebaluazio-probak gainditzea, gutxienez, 19 test
- **Progress testak** gainditzea: 2 zenbakidun Progress test biak eta 3 zenbakidun beste biak

Ziurtagiria digitala da, eta ikastaroa itxi ondoren eskuratu daiteke. Zure egiaztagiria lortzeko, Prestakuntza Zerbitzuko FAQ atalean kontsultatu: Administrazio Orokorra edo Toki Administrazioa.

PREZIOA

104€

LAGUNTZA

Ikastaroari buruzko kontsultarik izanez gero, tutorengana jo dezakezu:

- tutores.ivap@myoxfordenglish.com

Laguntza teknikoa behar izanez gero, euskarri teknikorako sailera jo dezakezu:

- soporte.ivap@myoxfordenglish.com
- Tel.: 916602922 / 916602670 / 916602927

Administrazio-gaiekin lotutako kontsultak egiteko: prestakuntza@ivap.eus

OHARRA

Erreklamazioetarako: ikastaroa bukatzen denetik hurrengo 10 eguneko epean.